

## BAIMENAK 12 - VD - Bidaiariak autobusez garraiatzeko baimen berria

### Fitxa interneten bistaratu

### INFORMAZIO OROKORRA

#### Helburua

Baimen honek bidaiariak autobusez garraiatzeko baimena ematen du, linea erregularra zein diskrezionala.

#### Nork tramitatzen du

- MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DPTUA.
- Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua

#### Harremana

##### Helbidea:

Julio Caro Baroja plaza, beheko solairua - atzealdea, 20018 Donostia

##### Ordutegia:

8:30etik 13:30era astelehenetik ostiralera

##### Helbide elektronikoa:

[garraioabaimenak@gipuzkoa.eus](mailto:garraioabaimenak@gipuzkoa.eus)

##### Harremanetarako telefonoa:

943 112991

#### Nori zuzenduta

Enpresak eta autonomoak.

#### Baldintzak

- 1.- Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea.
- 2.- Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko herrialderen batekoa izatea, edo atzerritartasun-araubideko baimena izatea garraiolari-jarduerarako.
- 3.- Gaitasun profesionalaren baldintza betetzea.
- 4.- Zerga betebeharrak beteta izatea.
- 5.- Lanaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak betetzea.
- 6.- Gutxienez ibilgailu bat izatea jabetzan, finantza errentamenduan edo errentamendu arruntean, trakzio propioa duena eta Espainian matrikulatua dagoena. Ibilgailu horrek bi urte baino gutxiagoko antzinatasuna izan behar du lehenengo matrikulazio-datatik.
- 7.- Erantzukizun zibilerako aseguru poliza estaldura mugagabearekin.
- 8.- Gaitasun ekonomikoa: 9.000 € lehenengo ibilgailuagatik eta 5.000 € atxikitako ibilgailu gehigarri bakoitzeko.
- 9.- Garraio jarduera egingo den egoitza bat edukitzea.
- 10.- Baliabide hauek dituela frogatzea: bitarteko informatikoak, posta elektronikoa, eta sinadura elektronikoa, ziurtapen zerbitzuen emaila baimendu batek emana.
- 11.- Linea erregularren kasuan, erreklamazio-liburua edukitzea.
- 12.- Ordaindu gabeko zehapenik ez izatea.
- 13.- Aholkularitza edo gestoria baten bitartez jardunez gero: gestoriak 001k ordezkari erroldan alta emanda egon behar du.

### HASIERA ETA ESKAERA

#### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

##### Aurkeztu beharreko agiriak:

[VD baimen berria - aurkeztu beharreko dokumentuak](#)

##### Ereduak:

- 1.- Eskaera, behar bezala beteta. [GBE](#)
- 2.- Interesdunaren baimena, agiri jakin batzuk egiaztatzeko Administrazioa ofizioz erregistro publiko zehatz batzuetara sartzea ahalbidetzen duena. [ERREGISTRO PUBLIKOAK](#)
- 3.- Baimenaren titularraren zinpeko aitortpena, ekipamendu informatikoa eta posta elektronikoa badituela adierazten duena. [EMAIL ZINPEKO AITORPENA](#)
- 4.- Gaitasun-agiridunaren/garraio kudeatzailearen zinpeko aitortpena, posta elektronikoa baduela adierazten duena. [GARRAIO KUDEATZAILEA - POSTA ELEKTRONIKOA](#)
- 5.- Baimenaren titularraren adierazpena zeinean enpresaren jarduera profesionalaren egoitza adierazten den, etxebizitza partikularrekin bat ez badator. [JARDUERAREN EGOITZA AITORPENA](#)
- 6.- Jarduera etxebizitza partikular batean egiten bada, ikuskaritza etxebizitza horretan sartu ahal izateko baimena. [JARDUERAREN EGOITZA- IKUSKARITZA BAIMENA](#)

## Eskaera moduak

» Internet

## Internet bidezko eskaera

Eskaera eta dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez bidali behar da. <https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do>

## Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

## EBAZPENA

---

### Ebazteko gehienezko epea

Legezko epea: bost hilabete.

### Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

## ARAUDIA

---

- Uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lurreko Garraioa Antolatzekoa, zeina aldatu egin baitzen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez. [Legea, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoa](#),
- Irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretua, Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen Erregelamendua onesten duena, zeina aldatua izan baitzen otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretuaren bitartez. [LGAE](#)